

AZTER DEZAGUN GURE JOKABIDEA

Jarduera honekin, zera landuko dugu

Gure kontsumo-ohiturez eta gure jokabideez hausnartzea.

Modu arduratsu eta solidarioagoan jokatzeko ekintza zehatzak proposatzea.

Ingurumenari eta kontsumoari begira gure jokabidea zertan alda dezakegun identifikatzea.

Garapen jasangarrirako 2., 6., 7., 11., 12. eta 13. helburuak.

Iraupena

Galdetegiari buruzko hausnarketa astebetean zehar egin dezake ikasle bakoitzak. Taldeko lana, berriz, saio bakar batean egiteko dago pentsatuta.

Beharko dugun materiala

Eranskineko fitxa (ikasle bakoitzarentzat bat).

Garapena

Eman ikasle bakoitzari galdetegiaren fotokopia bat. Ikasle bakoitzak bere galdetegia bete beharko du. Garrantzitsua da galdera bakoitzaren erantzuna aukeratu baino lehen ondo pentsatzea.

Galdetegia guztiek bete dutenean, jarri ikasleak launaka edo bosnaka. Talde horietan, galderen hiru ataletan eman dituzten erantzunen inguruan hausnartu behar dute:

- Energia-kontsumoa.
- Zaborrak eta hondakinak.
- Gure kontsumo-ohiturak.

Ikusi zertan dabilzan bikain, eta alderdi horien artean zein errepikatzen diren gehien. Garrantzitsua da zorionak ematea eta horrela jarraitzea bultzatzea.

Era berean, ikusi zertan dabilzan gaizki eta zertan hobetu behar luketen, eta taldean gehien errepikatzen direnak zein diren zehaztu.

Talde guztiek beren lana amaitu dutenean, ikusi ikasle guztiak zertan dabilzan bikain, zertan gaizki, eta zertan hobetu behar luketen.

Hausnarketa

- Jarduera honek lagundu al dizue zuzendu eta hobetu behar dituzuen alderdiak zein diren jakiten?
- Ba al zenekiten zein alderditan zeneukaten zuzendu edo hobetu beharra?
- Zuen ustez, zaila al da zuen jokabideak aldatzea, ala ahalegina eginez gero lortuko duzue?

Jarduera honek beste hau du osagarri: Sor dezagun kanpaina bat

Kontrol-fitxa, GURE KONTSUMO-EREDUA

Ohar garrantzitsua:

Galdera hauetako batzuk ez dira zuk zeuk daukazun ohiturei buruzkoak, baizik eta etxean daukazuen ohiturei buruzkoak; beraz, kasu batzuetan ez duzu erantzun behar zuk zer egiten duzun, baizik eta familian zer egiten duzuen.

Galdera bakoitzaren ondoren hiru erantzun daude, eta hiru horietatik bat aukeratu behar duzu: zure kasuari gehien egokitzen zaion erantzuna, hain zuzen.

A ATALA: ENERGIA-KONTSUMOA (KUTSADURA)

1. Itzaltzen al duzu argia, behar ez duzunean?

Bai, behar ez dudana guztietan itzali egiten dut.	B
Ez, piztuta uzten dut; ez zait gustatzen etxea ilunpetan egotea.	G
Batzuetan bai, itzaltzen dut, baina beste batzuetan ahaztu egiten zait eta piztuta uzten ditut.	H

2. Behar baino argi gehiago pizten al dituzu?

Ez; behar ditudan argiak bakarrik pizten ditut.	B
Bai; dena piztuta egotea gustatzen zait.	G
Normalean, behar ditudan argiak bakarrik pizten ditut, baina batzuetan behar baino gehiago pizten ditut.	H

3. Zure aisialdian zenbat erabiltzen dituzu elektrizitatea behar duten gailuak? (mugikorra, tableta, ordenagailua, kotsola, eta abar)

Pixka bat bakarrik.	B
La denbora guztia.	G
Nire aisialdi-denboraren erdia gutxi gorabehera.	H

4. Etxean, behar baino tenperatura altuagoan jartzen al duzue berogailua?

Ez, tenperatura egokian jartzen dugu, eta hotza izanez gero jertsea edo beste zerbait jantzen dugu.	B
Bai, oso altu jartzen dugu berogailua, negua izan arren etxean mahuka motzean egotea gustatzen zaigulako.	G
Normalean tenperatura egokian jartzen dugu, baina batzuetan altu samar.	H

5. Garraio publikoan joan daitekeen lekutara autoz joaten al zarete?

Ez, behar-beharrezkoa denean bakarrik erabiltzen dugu autoa.	B
Bai, leku guztietara autoz joaten gara, nahiz eta garraio publikoa egon.	G
Gehienetan garraio publikoa erabiltzen dugu, baina, batzuetan, garraio publikoa erabiltzeko aukera egon arren, autoa hartzen dugu.	H

B ATALA: ZABORRAK ETA HONDAKINAK (KUTSADURA)

6. Etxean bereizten al dituzue hondakinak (plastikoa, kristala, papera eta kartoia, hondakin organikoak)?

Bai, noski. Ez zaigu ezer kostatzen eta ona da ingurumenerako.	B
Ez, ez ditugu bereizten. Dena zakarrontzi berean botatzen dugu.	G
Batzuetan bai, baina ez beti.	H

7. Paketatuta dauden produktu asko erosten al dituzue?

Ez, produktu gehienak soltean erosten ditugu.	B
Bai, produktu gehienak paketatuta erosten ditugu; erosoagoa da.	G
Batzuetan bai eta besteetan ez.	H

8. Mendira joatean, zuen hondakin guztiak jasotzen al dituzue?

Bai, hondakin guztiak bildu eta gurekin eramaten ditugu.	B
Ez, hantxe uzten ditugu. Ez dugu zama gehiago eraman nahi izaten.	G
Batzuetan bai eta besteetan ez.	H

C ATALA: GURE KONTSUMO-OHITURAK

9. Etxean botatzen al duzue janaririk? (Hausnarketa egiteko eta datuak eskuratzeko beharrezkoa izanez gero, «Elikagaiak eta ura GJH» blokeko «Etxean botatzen duguna» jarduerara jo dezakezue).

Ez, gure etxean ez dugu janaririk botatzen; dena aprobetxatzen dugu.	B
Bai, janari asko erosten dugunez, gero hondatu egiten zaigu eta bota egiten dugu.	G
Normalean ez dugu botatzen, baina batzuetan bai.	H

10. Ura alferrik gastatzen al duzu? Adibidez, hortzak garbitzean irekita uzten al duzu txorota, edo behar baino denbora gehiago ematen al duzu dutxan?

Ez; kontu handiarekin ibiltzen naiz urarekin.	B
Bai, nahi dudan guztia gastatzen dut; ez zait axola ur asko gastatzea.	G
Normalean kontuz ibiltzen naiz, baina batzuetan despistatu egiten naiz.	H

11. Behar ez dituzuen gauzak erosten al dituzue?

Ez; behar duguna bakarrik erosten dugu beti.	B
Bai; asko gustatzen zaigu merkataritza-guneetan erosi eta erosi ibiltzea.	G
Normalean ez, baina batzuetan bai.	H

12. Etxea garbitzean, ingurumena kaltetzen duten produktuak erabiltzen al dituzue?

Ez, produktu biodegradagarriak erabiltzen ditugu.	B
Bai; produktuak erabiltzean ez dugu begiratzen ingurumena kaltetzen duten edo ez.	G
Batzuetan bai eta besteetan ez.	H

13. Lan-baldintza egokiekin egindako produktuak erosten al dituzue?

Bai, oso kontuan izaten dugu hori.	B
Ez; gauzak erosten ditugunean ez dugu galdetzen nork eta nola egin dituen.	G
Batzuetan bakarrik.	H

14. Produktuak erostean kontuan izaten al duzue ingurumena zainduz eginda dauden?

Bai; garrantzi handia ematen diogu ingurumena zaintzeari.	B
Ez; ez dakigu produktuak nola eginda dauden eta ez zaigu axola.	G
Batzuetan bai eta besteetan ez.	H

B erantzunak esan nahi du bikain jokatzeko duzula.

G erantzunak esan nahi du gaizki jokatzeko duzula.

H erantzunak esan nahi du hobetu egin behar duzula.

SOR DEZAGUN KANPAINA BAT

Jarduera honekin, zera landuko dugu

Ohitura jasangarriagoak izateko beharraz konturatzea.

Ohitura horiek lortu ahal izateko ekintza zehatz batzuk sortzea.

Kanpaina bat diseinatu eta egitea, ekintza horiek sare sozialetan zabaltzeko.

Garapen jasangarrirako helburu guztiekin du lotura, 16.aren izan ezik.

Iraupena

Jarduera hau hainbat saiotan egiteko dago pentsatuta, taldearen arabera. Interesgarria litzateke amaitu ondoren noizean behin berrikustea, haren bidez hartutako konpromisoak betetzen ari diren ikusteko.

Aurretiazko oharra

Kanpaina lantzeko lehen fasean, ikasleek batik bat ordenagailuen edo tableten bidez egin ahal izango dute lana. Baina gero, sare sozialetan zabalpena emateko – WhatsApp bidez bereziki –, beharbada klasean eskura beharko dituzte telefono mugikorrak.

Garapena

1. fasea

Azter dezagun gure jokabidea jardueran egindako talde berak egin, eta azaldu:

«Aurreko jardueran, bizitzeko eta kontsumitzeko ohituretan dauzkagun jokabideak aztertzean, ikusi dugu gauza batzuk bikain egiten ditugula, beste batzuk gaizki, eta beste batzuk hobetu egin behar ditugula, ingurumena behar bezala zaintzeko. Gauza asko ez daude gure esku, baina beste batzuek zerikusia dute gure eguneroko kontsumo-ohiturekin. Horregatik, garrantzitsua da guk ere zerbait egitea, gure esku dagoena aldatu ahal izateko, galdetegian aztertutako hiru arloetan: energia-kontsumoan, zabor eta hondakinetan, eta kontsumo-ohituretan.

Talde bakoitzean, hiru alderdi horietako bakoitzerako ekintza zehatz bat proposatu beharko duzue, gure jokabidea alda dezagun. Gainera, gero zabalpena emango diegu zuen proposamenei, beste pertsoneri ere ezagutarazteko».

Eman talde bakoitzari lanerako orri bat, eta presta dezatela beren proposamena.

2. fasea

Talde guztiek beren proposamena landu dutenean, talde bakoitzetik pertsona bat zutituko da eta proposatu duten ekintzetako bat azalduko du. Proposamen horiek arbelean idatzi, atalaren arabera sailkatuta (energia-kontsumoa, zaborrak eta hondakinak, kontsumo-ohiturak). Antzekoak diren proposamenen kasuan, aldatzen diren xehetasunak bakarrik apuntatu. Azken taldeak beren proposamen osoa idatzi ezinik gera ez daitezten, talde bakoitzak bakar bat proposatuko du.

Proposamen guztiak arbelean idatzita daudenean, denen artean proposamenak aztertu eta dekalogo bat sortu.

Dekalogo horrek ikasle guztiek bete beharreko konpromisoak jasoko ditu.

Ikastetxeko beste ikasleek eta ikasleen inguruko jendeak dekalogoaren berri izateko, kanpaina garatzeko eta zabaltzeko hurrengo fasera igaro.

3. fasea

Aurreko fasean landutako dekalogoan oinarrituz, banatu puntuak taldeen artean eta talde bakoitzak irudi erakargarria duen eslogan deigarri bat asma dezala egokitu zaion puntu bakoitzerako.

Talde guztiek beren lana egin ondoren, sare sozialen bidez zabaldu.

Hausnarketa

Garrantzitsua da prozesu osoa amaitu dutenetik denboratxo bat igaro ondoren kanpainaren ebaluazioa egitea eta zer-nolako oihartzuna izan duen ikustea: nolako

erantzuna izan duen, zenbat jarraitzaile lortu dituen, zer iruzkin jaso dituen, zenbatek partekatu dituzten argitalpenak, interakzioak, eta abar.

Lanerako orria (talde bakoitzarentzat bat)

Helburua

Zuen taldean ekintza batzuk zehaztu behar dituzue; gai bakoitzeko gutxienez bat. Ekintzak ulerterrazak eta eginerrazak izan behar dira, mundu guztiak inolako arazorik gabe ulertu eta egin ahal izan ditzan. Pentsatu zuengan eta zuen ingurukoengan: ekintzak egiteko modukoak izan behar dira, pertsonak beren jokabidea benetan aldatzeko egokiak.

Galdetegiko galderetan oinarrituz, begiratu zein alderdi diren gaizki egiten direnak eta hobetu beharrekoak, eta proposatu jokabide egokiak izateko ekintzak.

Hiru gaiak

Zer egin energia gutxiago kontsumitzeko:

Zer egin zabor eta hondakin gutxiago sortzeko:

Zer egin gure kontsumo-ohiturak aldatzeko:

KONTSUMOAREN BOTEREA

Jarduera honen bidez, zera landuko dugu

Kontsumitzaile gisa daukagun jokabideaz hausnartzea.

Gure ekintzen eta GJHen artean dagoen loturaz konturatzea.

Logikaz hausnartzea eta lana taldean egitea.

GJHak elkarri lotutako errealitate konplexuak direla ulertzea.

GJH guztiak, 16.a izan ezik.

Iraupena

Saio bat.

Beharko dugun materiala

«Nolako eragina dute gure kontsumo-ohiturek GJHetan?» infografia. [Esteka](#)

Garapena

Ikasleak ahal izanez gero bederatzi taldetan banatu –ikono bakoitzeko talde bat egoteko–. Erakutsi GJHen ikonoak dauzkan irudiaren infografia. Gaingiroki bada ere, banan-banan azaldu, denek jakin dezaten haietako bakoitzak oro har zer esan nahi duen.

Saguarekin, jokabideen ikonokoetako bakoitza seinalatzen joan, testua ager dadin, baina klikatu gabe.

Talde bakoitzak jokabide bakoitzaren eta GJHen arteko loturak atera behar ditu; hau da, zehaztu behar dute zeintzuek jasotzen duten zuzenean gure kontsumo-ohituren eragina.

Nahi beste lotura atera ditzakete, baina jartzen dutena azaltzeko gai izan behar dute betiere.

Hausnarketa

Bukatutakoan, talde bakoitzak aurkitu dituen loturak azalduko ditu. Haien guztien ekarpenak arbelean idatzi.

Talde bakoitzak bere azalpena eman ondoren, klikatu dagokion ikonoa infografian, eta antzekotasunak eta desberdintasunak komentatu.

Hausnarketak bideratzeko, honelako galderak egin:

- Zer iruditzen zaizkizue aurkitu dituzuen loturak? Ba al zenekiten horrelako loturak zeudela?
- Infografia osoari begiratu. Konturatzen al zarete ze harreman estua dagoen gure jokabideen eta GJHen artean?
- GJHak betetzen ez badira, kalterik handiena behartsuenek jasango dute. Zergatik? Gure ekintzek eta GJHek eragina al dute munduko beste pertsona batzuegan?

Orain, hausnartu infografiaren behealdean ageri den galderaren inguruan: Zer

ezaugarri daukate kontsumo-ohitura hauek guztiek eta haiei lotutako GJHek?

Eman dezatela beren iritzia. Gero, klikatu testuaren gainean eta ikusi erantzuna.

- Konturatzen al zarete kontsumitzaile garen aldetik daukagun eraginaz?